

URTARRILA - EKAINA

2021

Prestakuntza- Jardueren

PROGRAMA



COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE NAVARRA
NAFARROAKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA

NAVARRA · NAFARROA

PRESTAKUNTZA-JARDUEREN PROGRAMA

Gizarte Langintzaren Elkargoak online formatuan egin daitezkeen jarduera programatuak egiten jarraitzea erabaki du, oraindik ere zaila baita aurrez aurre egiteko eskatutako segurtasun-distantzia bermatzea.

Modu horretan, seihileko honetako prestakuntza-eskaintzan ondorengoak izango ditugu: ikastaroak, prestakuntza-pilulak eta espazio partekatuak.

1. IKASTAROAK

Gure lanbidean aritzeko gure trebetasunak eta gaitasunak hobetzen laguntzen duten prestakuntza-jarduerak dira.

Seihileko honetarako honako ikastaro hauek planifikatu ditugu:

- **“ESKU-HARTZE SOZIALAREN METODOLOGIA: KASU PRAKTIKOAK”**
20 ORDU (12,5 ordu online + 7,5 ordu banako lana).
Online.
- **“ESKU-HARTZE SOZIALA GENEROAREN IKUSPEGITIK”**
12 ORDU
Online.
- **“ACTUALIZACIÓN DE INFORME SOCIAL”**
- **“TXOSTEN SOZIALA EGUNERATZEA”**
15 ORDU (7,5 ordu online + 7,5 ordu banako lana).
Online.

2. TAILERRAK / PRESTAKUNTZA-PILULAK

Jarduera hauetan, gaia modu labur eta/edo praktikoagoan gauzatzen da. Arratsalde batean egin ditzakegun jarduerak dira, Gizarte Langintzaren alderdi mordoaren barnean aztertu beharreko gai interesgarriei buruzko zertzeladak eman diezazkiguketanak.

Seihileko honetan, 3 tailer eta/edo prestakuntza-pilula antolatu ditugu:

- **“DATUEN BABESA ESKU-HARTZE SOZIALEAN”**
1,5 ORDU
Online.
- **“GIZARTE LANA JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAN”**
1,5 ORDU
Online.
- **“GIZARTE-PLANGINTZARI ETA -ESKU-HARTZEARI APLIKATURIKO BERRIKUNTZA”**
2 ORDU
Online.

3. ONLINE ERAN PARTEKATURIKO GUNEAKINE

Gure ustez, beharrezkoa da topaketak sustatzea eta beste elkargokideak inspiro ditzaketen gaiak, praktikak eta egiteko moduak partekatzea. Horretarako, topaketa fisikoak egin nahiko genituzke, baina oraingoz espazio horiek online formatuan planifikatzen jarraituko dugu.

Seihileko honetarako ondorengoak planteatu ditugu:

- **“IKUSKATZEA”**
- **“ELKARGOKIDE BERRIEI HARRERA”**
- **“JARDUERA ASKEKO GIZARTE LANA. TEORIA ETA PRAKTIKA”.**

IKASTAROAK

1

“Esku-hartze sozialaren metodologia: kasu praktikoak”

Online

IARA M^a BAUTISTA RUIZ

20 ORDU

(12,5 ordu online + 7,5 ordu banako lana)

DATAK:

Elkarren segidako 5 larunbatetan: 2021eko OTSAILA (6, 13, 20, 27) eta MARTXOA (6).

ORDUTEGIA: 9:00etatik 11:30era.

PREZIOA:

80 € Nafarroako elkargokideentzat (lehtasuna).

100 € Gizarte Langintzako beste Elkargo batzuetako elkargokideentzat.



Ikastaro honen asmoa da esku-hartzearen metodologian entrenatzea gure lanbideko kasu praktiko espezifikoentz bitartez. Helburu orokorra da banako eta familiako esku-hartze proiektuen ebazpena hobetzea, tresna nahikoak lortuz eta gizartelanaren aplikazio praktikoan ezagutzak eta trebetasunak hartuz.

+Info
Izen-ematea

IKASTAROAK

2

“Esku-hartze soziala generoaren ikuspegitik”

Online

RUT ITURBIDE RODRIGO

12 ORDU

Teoriko-praktikoak.

DATAK: 2021eko MARTXOA
(2, 9, 23, 30, astearteak)

ORDUTEGIA: 16:30etik
19:30era

PREZIOA:
60 € elkargokideentzat eta
Gizarte Laneko ikasleentzat
90 € gainerako
pertsontzat.



Genero-ikuspegia kontuan hartuta jardutea hizkuntza inklusiboa erabiltzetik haratago doa. Ikastaro honen bitartez, gure jarduera profesionalak berrikusteko aukera eskaintzen ahaleginduko gara, betiere ikuspegi hori kontuan hartuta.

Prestakuntza honen helburu orokorra da genero-teoriari buruzko oinarritzko kontzeptuak geureganatzea, pertsonei bizitzako hainbat esparrutan (soziala, osasun-arlokoa, juridikoa, administratiboa, e.a.)

laguntzeko egiten den esku-hartze profesionalean modu praktikoan aplikatzearren.

+Info
Izen-ematea

IKASTAROAK

3

“Txosten Soziala eguneratzea”

Online

EVA GARCÉS TRULLENQUE

15 ORDU

(7,5 ordu online + 7,5 ordu banako lana).

DATAK:

Elkarren segidako 5 astelehenetan: 2021eko APIRILA (26) eta MAIATZA (3, 10, 17, 24).

ORDUTEGIA: 17:00etatik 18:30era.

PREZIOA:

60 € Nafarroako elkargokideentzat eta Gizarte Laneko ikasleentzat

80 € Nafarroaz kanpoko GLko beste Elkargoetako elkargokideentzat.



Txosten soziala irizpen teknikoa da, dokumentu-tresna bezala erabiltzeko balio duena eta gizarte-langileak eskusiboki egin eta sinatzen duena. Gizarte-langileak ohartu behar du hori egiterakoan nolako erantzukizuna hartzen duen, eta gizarte-txosten zorrotzak sortu ahal izateko behar duen denbora eta ahalegina eskaini behar ditu; modu horretan, datuak babesteko legedia ere kontuan izan beharko du, txosten sozialak egitearekin informazioa uzten dela ulertzen baita. Beraz, beharrezkoa da gizarte-langileok gure lan-jardunari buruzko gogoeta egitea, txosten soziala egiteari dagokionean, eta,

horretarako, metodologia egokia erabili ahal izatea. Ikastaroan, metodologia teoriko-praktikoa jorratuko da, eta, era horretan, irakasleak nahiz parte-hartzaileek kasu praktikoak proposatuko dituzte. Horrela, gizarte-langile gisa ditugun gaitasunak hobetu ahal izango ditugu txosten sozialak egiterakoan, gure praktikan ohikoak diren dilema etikoak eta legezkoak ebatziz.

+Info
Izen-ematea

PRESTAKUNTZA- PILULAK

Online

1

“Datuen babesa
esku-hartze
sozialean”

Online

ALBERTO SAEZ
PRODANA CONSULTORES



1,5 ORDU

DATA: 2021eko otsailak 10,
asteazkena.

ORDUTEGIA: 17:30etatik
19:00era

DOAKOA Nafarroako
Gizarte Langintzaren
Elkargoko elkargokideentzat
eta Gizarte Langintzako
ikasleentzat.

2018ko maiatzaren 25ean, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (DBEO) aplikatu zen, eta horrek datu pertsonalak erabiltzen dituzten enpresa, elkarte, administrazio eta erakunde guztiei eragingo die. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2016ko apirilaren 27an emandako 2016/679 Erregelamendua (EB) datu pertsonalen tratamenduari eta horien zirkulazio askeari dagokionean pertsona fisikoak babesteari buruzkoa da, eta, horren arabera, datu pertsonalen tratamenduari erreparatuta, pertsona fisikoak babestea funtsezko eskubidea da.

Erregelamendu berriarekin, enpresek, elkarteek, administrazioek eta erakundeek informazio-betebehar gehiago dituzte bereziki pertsonen baimena jasotzerakoan. Era berean, barne-erregistro batzuk eduki beharko dituzte, eguneratuta eta eskumeneko agintaritzaren eskura. Modu horretan, saio honen bitartez, DATUEN BABES berria ezagutarazi eta nola kudeatu erakutsi nahi da.

+Info
Izen-ematea

PRESTAKUNTZA- PILULAK

Online

2

“Gizarte Lana Justizia Administrazioan”

Online

**MARTA ZUBIKOA
MENDIGUTXIA**

1,5 ORDU

DATA: 2021eko apirilak 21,
asteazkena.

ORDUTEGIA: 18:00etatik
19:30era.

DOAKOA Nafarroako
Gizarte Langintzaren
Elkargoko elkargokideentzat
eta Gizarte Langintzako
ikasleentzat



“Gizarte Lana Justizia
Administrazioan” izeneko
formazio-pilularen asmoa
da gizarte-langileek
Nafarroako Justizia
Administrazioan egiten
duten lanari buruzko
informazioa gerturatzea eta
zabaltzea.

Nafarroako arlo judizialean
gizarte-langileak duen
figuraren aurkezpen
labur bat da: gizarte-
langileen jarduna Justizia
Administrazioan, kide
izatea, taldeak, funtzioak,...

**+Info
Izen-ematea**

PRESTAKUNTZA- PILULAK

Online

3

“Gizarte-plangintzari eta -esku-hartzeari aplikaturiko berrikuntza”

Online

JULEN ETXEBESTE



2 ORDU

DATA: 2021eko maiatzak 19, asteazkena.

ORDUTEGIA: 17:00etatik 19:00etara.

DOAKOA Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargoko elkargokideentzat eta Gizarte Langintzako ikasleentzat

Eskualdeen Europako Batzordeak berresten du “gizarte-berrikuntzak zeregin garrantzitsua izan dezakeela gizarte-, ekonomia- eta lurralde-koheretza lortzeko”, eta, gainera, “erronka sozial guztiei aurre egiteko tresna garrantzitsua izan daitekeela; tartean, esate baterako, gazteen langabeziari aurre egitea, adinekoen zaintza eta autonomia bultzatzea, lan-merkatuan sartzeko zailtasun gehien dituzten pertsonen integrazioa bultzatzea eta lurralde periferikoak ez ezik, erronka demografiko desberdinei aurre egin behar dieten eskualdeak eta gainbeheran dauden hiriguneak ere suspertzea”.

Gizarte-berrikuntza (GB), beraz, funtsezko erreminta da gizarte-plangintza eta -esku-hartzerako. Baina, zer da? Eta oso garrantzitsua, nola aplikatu dezakegu praktikan?

Prestakuntza-pilula honen bitartez, honako gogoeta hau egiteko gune bat eskaini nahi dugu: Berrikuntza nola sartu gizarte-lanean.

+Info
Izen-ematea

Online

ERAN PARTEKATURIKO

GUNEAK/WEBINARRAK

1

“Ikuskatzea”

CONCEPCIÓN ONECA

DATA: 2021eko urtarrilak 27, asteazkena.

ORDUTEGIA: 17:00etatik 18:30etara.

DOAKOA Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargoko elkargokideentzat.



Talde profesional hau lehen lerroan dago (horri lotuta gaude), eta harreman zuzena du gizakiaren krisiekin eta arazoekin, banakoekin zein kolektiboekin. Esperientzia oso aberasgarriak dira, eta emozioak mugitzen dituzte profesionalen artean, beste kolektibo profesional batzuegandik haratago doazenak. Gainbegiratzela horren eskaera lana partekatzeko, gatazkak jorrazeko teknika berriak ikasteko eta besteak zaintzeko eta norberak bere burua zaintzeko gaitasuna gehiago eta hobeto

garatzeko beharrak eta nahiak sortzen dute.

Hori dela-eta, tarte hau eskaini nahi genuke, ondoren gainbegiratzeko taldea sortzeko aukera aztertzearen. Saio honetan, zuzenean ezagutu ahal izango duzue gainbegiratzeko proposatzen den ikuspegia, eta horrekin jaso diren premia profesionalei erantzun daitekeen ikus ahal izango duzue.

+Info
Izen-ematea

Online

ERAN PARTEKATURIKO GUNEAK/WEBINARRAK

2

“Elkargokide berriei harrera”

AGURTZANE ARAMENDI
NAFARROAKO GLEOKO
IDAZKARI TEKNIKOA

DATA: 2021eko apirilak 24,
asteazkena.

ORDUTEGIA: 17:30etatik
19:00era.

DOAKOA Nafarroako
Gizarte Langintzaren
Elkargoko elkargokideentzat.



2020. urtea urte zaila izan da. Distantziatik partekatzen eta parte hartzen ikasi behar izan dugu. Pertsona asko elkargokide egin dira 2020 honetan, eta, pandemia dela-eta, online eran egin behar izan dute. Batzuek ezin izan dute ezta Elkargora fisikoki hurbildu ere, ezagutu eta ideiak, iradokizunak, zalantzak,... planteatu ahal izateko.

Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargoan pentsatu dugu tarte bat eskaini nahi diegula 2020an elkargokide egindako

pertsonei, Elkargoa eta haren funtzionamendua ezagutu dezaten. Modu berean, berriki elkargokide egin diren pertsonen ideiak, iradokizunak eta premiak jasotzeko tarte izan daiteke.

+Info
Izen-ematea

Online

ERAN PARTEKATURIKO GUNEAK/WEBINARRAK

3

“Jarduera askeko Gizarte Lana. Teoria eta praktika”

BERTA A. MONEO (TEORIA)
ETA **LOREA URABAYEN,**
MAITE ERASO, ARANTXA
ZAZPE, JAVIER IRUJO...
(EKINTZAILETZAN
HASI DIREN BESTE
ELKARGOKIDE BATZUK).

DATA: 2021eko ekainak 2,
asteazkena.

ORDUTEGIA: 17:30etatik
19:00era.

DOAKOA Nafarroako
Gizarte Langintzaren
Elkargoko elkargokideentzat.



2020an, jarduera askeko
Gizarte Lanera hurbiltzeko
aukera izan genuen lehen
aldiz. Saio hartan, jarduera
libreko praktika zehatzak
ezagutzeko aukera izatea
eskatu zen, besteak beste.

Saio honetan, jarduera
askeko Gizarte Lanari
buruzko lehen hurbilketa
teorikoa azaldu nahi genuke
(Berta A. Moneok landutako
ikerketa), ondoren,
Nafarroan elkargokide
egindako eta ekintzailertzan
hasitako pertsonen
esperientzia zehatzak
ezagutu ahal izateko.

+Info
Izen-ematea



COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE NAVARRA
NAFARROAKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA
NAVARRA · NAFARROA

www.trabajosocialnavarra.org

Manuel de Falla, 12 • Entpta. Of. 2 / 31005 Pamplona • Iruñea Navarra / Tlf.: 948 240 401